

LEZO BIZIRIK


Egia da oso zaila egiten dela gure bizitokiak jasaten dituen aldaketataz jabetzea. Ingurua etengabe aldatzen ari da baina gu ez gara horretaz behar bezala ohartzen. Herritik kanpo epe luzez ibili ondoren itzultzen denak ordea, zera dio: "Baina nola aldatu den Lezo!"

Bai. Herriak aldatu egiten dira, haunditu edo txikituz, ohitura zaharrei eutsiz, edo modernizatuz. Aldaketa hauek ordea guk uste baino azkarrago gertatzen dira.

Aldaketa hauek herriaren arlo askotan ematen dira: etxe, industria eta zerbitzuz urbanizatutako lur kopurua, baserrilurren murrizketa, errepide kopurua, etab.

Herri eta hirien ikertzaileek, hauen eboluzioa ikusi eta aztertzeko zailtasun haundiak topatzen dituzte. Nolabaiteko azterketa bat egiteko BIZTANLEGOAN oinarritzen dira. Haunditzen ari diren herrietan biztanlegoa zenbat urteoro bikoizten den neurtzen dute.

Lezo, bailarako gainontzeko herriak bezalaxe, duela mende eta erditik hona, geldiezina dirudien hazkunde prozesu batean aurkitzen da. Nahiz eta gure gaur egungo ikuspegitik, Lezo, Orereta edo Pasai Antxoren saturazio egoerara iritsi daitekeela sinestezina irudit, egunero errealitateak bestelakoa erakusten digu.



Lezo, etorkizun batean eta gaurtik neurririk hartzen ez baldin badira, antzeko saturazio egoera batetara doa.

Udalerriak	1900	1910	1920	1930	1940	1950	1960	1970	1975	1981
Lezo	1.198	1.263	1.423	2.062	2.143	2.447	3.296	4.057	5.008	5.372
Orereta	4.081	5.527	6.956	8.973	10.106	12.784	18.642	34.369	46.329	45.789
Pasaia	2.856	3.571	4.772	7.519	10.024	11.773	15.036	21.130	22.501	20.696
Oiartzun	3.960	4.268	4.200	4.378	5.579	5.273	5.346	6.704	7.627	7.664

Datu iturria: "BIZTANLEGOAREN EBOLUZIOA" Eusko Jaurlaritza 1982ko Ekaina

Taula honetan ikus dezakegunez Oreretak adibidez mendi hasieratik, biztanlegoa hamaika aldiz biderkatu du. Lezok berriz epe berean bost aldiz biderkatu du.

Bai. Hori lehen gertatzen zen. (Industrializaioa, inmigrazioa, etab). Gaur egun ordea, Gipuzkoan, emigrante kopurua inmigranteena baino haundiagoa da. Modu errazago batean esanda: nahiz eta garai batean kanpotik jende asko etorri, gaur egun jende gehiago da kanpora aldegiten duena.

Era berean esan beharra dago Gipuzkoako biztanlego orokorra beheruntz doala, hildakoak, jaiotakoak baino ugariagoak bait dira.


Eskualdeak	1860	1877	1887	1900	1910	1920	1930
Bidasoa behea	5,48	6,43	7,34	7,27	7,62	7,63	7,88
Deba behea	9,64	9,56	9,51	9,95	10,48	10,19	9,37
Deba garaia	14,57	13,89	13,68	12,15	11,21	10,65	10,25
Goierrri	14,89	14,77	13,13	11,84	11,25	10,66	10,24
Donostialdea	22,90	25,79	29,07	32,54	34,85	37,66	40,63
Tolosaldea	17,26	14,68	13,06	12,47	11,61	11,02	9,99
Urola kostaldea	15,22	14,86	14,19	13,74	12,93	12,17	11,59
Gipuzkoa	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00

Eskualdeak	1940	1950	1960	1970	1975	1981	1986	1991 ⁽¹¹⁾
Bidasoa behea	6,13	7,30	8,02	8,80	9,09	9,33	9,87	10,5
Deba behea	8,76	9,30	11,68	10,41	9,94	9,49	8,98	8,72
Deba garaia	9,69	9,54	9,37	9,67	9,66	9,57	9,51	9,44
Goierrri	9,89	9,79	10,91	10,66	10,33	9,99	9,83	9,63
Donostialdea	44,98	43,99	42,70	44,85	45,71	46,15	46,25	46,37
Tolosaldea	9,59	9,36	7,91	6,97	6,69	6,70	6,63	6,62
Urola kostaldea	10,92	10,68	9,37	8,60	8,54	8,73	8,89	9,14
Gipuzkoa	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00

⁽¹¹⁾ Behin behineko emaitzak dira.

Datu iturria: Biztanel-Zentzuak eta 1995, 1998ko Udal-Erroldak. (Egileak landuak)

Gipuzkoako eskualdeen gertatzeko biztanleriaren bilakaera: 1860-1991
(Zenb.Indiz.) Oinarria=1860 ⁽¹²⁾



Datu-iturria: Biztanle-Zentruak eta 1975 eta 1986ko Udal-Erroldak. (Egileak landuak)

⁽¹²⁾ 1991ko Bizante-Zentzuko emaitzak behin-behinekoak dira.

Bigarren taula honetan bi puntu dira nabarmenak. Batetik Gipuzkoa osatzen duten bailara ezberdinen desoreka. Bestetik bailara gehienek hustutzea eta Donostia-Irun arteko ardatzean biztanlegoaren gorakada izugarria.

Gipuzkoako Foru Aldundia, zenbait sektore ekonomiko eta espekulatzailen mesedetan BAIONA-DONOSTIA hiri erraldoi baten aldeko apostua egiten ari da. Gipuzkoan zehar banaturik dagoen biztanlegoa Irun-Donostialdean bildu nahi dute.

Donostialdean, espekulatzailak eta eraikitzaileak pozik daude, etengabeko hazkunde honetan, nahiz eta beste bailarak baztertu eta piskanaka hustuz joan.


Gera gaitezen une bat eta pentsa dezagun. Orereta, Pasai Antxo, Altza eta antzeko herriak ikus ditzagun. Pentsa dezagun baita ere duela 30 urtetako Lezo eta gaur egungoa.

Oraingoa lehengokoa baino ederragoa al da?

Orereta, Antxo, etab. Bizitzeko, Lezo baino egoki eta atseginagoak al dira?

Herri bakoitzak bere nekazari, industrialde eta zerbitzuen arteko oreka mantentzen saiatu behar du.

Hazkunde naturalaz gain **biztanlegoaren etengabeko haunditze desorekatu bat ematen bada, hori, soilik lurraren interes espekulatzailatik gertatzen da.**



Desoreka horretan, pertsonak, herriak, merkantzia bihurtzen gara eta ondorioz txo-
txongilo modura eta espekulatzailen interesen arabera, toki batetik bestera mugituko
gara.

Lezoko Autobia Donostia-Baiona hiri erraldoi horren aldeko urrats garrantzitsu bat da.
Datozen urtetan, hemengo lurak izugarrizko presioa izango dute (industria, etxebizitzak,
A.H.T.).

Non geratuko zaigu Lezo? Hiri haundi honek irentsita. Autobideak, Lezo eta Pasai
Donibane, gainontzeko bailaratik isolatuko ditu. Lezo, Donostiaren logela izatera konde-
naturik ote dago?

“Autobiaren Aurkako Herri Ekimena”

